

KALDEREROAK

ZEIN EDERRA

Hungariar Kaldereroen koroa

ZEIN EDERRA!, ZEIN XARMANTA!
DEBAKO LURRA TA HIRIA
HERRI JATORRA DEBARRA
AGURTUZ DUGU ATSEGINA

HUNGARIAKO KALDEREROAK GARA
ETORRIRIK DEBA ALDERA
LAISTER MOMOK ARGITUKO DIGU
NAHIZ EGUNA NAHIZ ETA GAUA.

IHAUTERI ALAIAREN
IRAGARLE GU GARA
BAI!!! ATEGINA
ETA ALGARA (BIS)
AIZAK, JOZAK, JOZAK
AIZAK, JOZAK, JOZAK

ZEIN EDERRA!, ZEIN XARMANTA!
DEBAKO LURRA TA HIRIA
HERRI JATORRA DEBARRA
AGURTUZ DUGU ATSEGINA

HERRIZ HERRI

Zeharribiltzen

HERRIZ HERRI GABILTZA GU BE-E-TI
EDERREZ BEGIAK ASERIK (BIS)

BAINA INON EZ DUGU IKUSI
HEMEN BEZAIN MUTIL EDERRIK
BAINA INON EZ DUGU IKUSI
HEMEN BEZAIN NESKA EDERRIK.

GERRI MEHEA ETA LIRAINA
ESPAINAK GORRI ETA MARDUL. (BIS)

GURE ARTEKO BAT BAZINA
ZU-U-K BEGIEZ METALA URTU (BIS)

BAI, BAI, URTU, URTU!

KALEJIRAN:

Pasacalle

EKARRI TXOKOLATERAK
GUK KONPONDU DITZAGUN!

BEGI URDIN BAT

FAMAREN HOTSAK GOITITUTZEN DU
MEREZI DUEN HERRIA
ZERU TXIKI BAT DIRUDIENA
HALA DA GUSTAGARRIA

L'HENGOKO Z'HARRA TXUKUN TXUKUNA
EDER, ALAIA BERRIA
ETZAIGU PENIK BEÑERE JUANGO
L'HENAGO EZ ETORRIA (BIS)

BEGI URDIN BAT BEGIRA DAGO
ALGARAZ LEHIO BATETIK
BESTE BELTZARAN, TENTATZAILEA
TXELETAN BERRIZ BESTETIK

ZORAMEN HAUEK MAITE DITUGU
BIHOTZEN ERDI ERDITIK
EZ GARA JOANGO HOIEK LAGATA
GEHIAGO EUSKAL HERRITIK (BIS)

EZ GARA JOANGO EZ
GU EUSKAL HERRITIK!

HUNGARIAR KANTA

ARBEIT ASFREIT
IST GUT RUHEN SINGELIN
ARBEIT ASFREIT
IST GUT RUHEN SINGELIN (BIS)

EST MUR SER LUNCH
EST MUR SER LUNCH
FRAIS KEN FOR LEN
WOLMIACH ON MEN (BIS)

ADISKIDE MAITEOK

Hungariar kaldereroak lanean. Mazurka

ADISKIDE MAITEOK, EKIN BA LANARI!!

KRISEILU, LAPIKO, PERTZAK,
BURRUNTZALI ETA ELTZEAK
AISE KONPONTZEN, GU GARA
MERKE ETA TREBEAK (BIS)

ETA LANA MUSU TRUKE
POZIK EGINGO GENUKE
HOR GOIKO NESKA POLITEK
ESKATZEN BADIGUTE (BIS)

DEBAR NESKATXA PANPOXA
EZ AL DUGU BESTE LANIK
AURTENGOZ BADUGU ASKI
ETA GOAZEN AURRERA (BIS)

KONTU IZAN, AGUR GISA
KALDEREROAEK KANTATZEAN
BERRIZ ERE EGUN BATEZ
JOKO DUGULA TAK-TIKI-TAK (BIS)

DEBAR NESKATXA PANPOXAK
EZ AL DUGU BESTE LANIK
AURTENGOZ BADUGU ASKI
ETA GOAZEN AURRERA (BIS)